



LIBURUA

Just a little bit harder



KARBOLA HIRUKOITZA. EMAKUMEEN PRESENTZIA EUSKARAZKO ANTZERKI SORKUNTZAN

ENERITZ ARTETXE ARANAZ

EHAZE, 2019

AMAIA ALVAREZ URIA

Eusko Jaurlearitzak arte eszenikoe-tan generoaren egoera ezagutzeko enkargua egin zion Eneritz Artetxeri. Berak datuak bildu eta 22 sortzaileri elkarrizketa egin zien. Honatx emaitza: kultur sorkuntzan diharduten emakume euskaldunen egoera.

Hego Euskal Herriko antzerkiaren munduari ikuspegi feministatik begiratu dio Artetxek, berriki Lorea Agirrek eta Idurre Eskisabelek euskarari, Eider Rodriguezek euskal emakume idazleei eta Uxue Alberdik emakume bertsolariei egin bezala.

Silvia Federici eta Angela Davisen laguntzarekin ezarri du markoa: heteropatriarkatu kapitalistan bizi gara eta horren isla topa dezakegu arte eszenikoetan. Euskal emakume sortzaileek za-

palkuntza hirukoitza jasaten dute, baina, zapalkuntzarekin batera eraldaketarako aukera dagoela dio.

Bertsolaritzan legez, ikasketetan emakumeak gehiengoa diren arren, profesionalizatzean gizonezkoak dira nagusi. Honez gain, estereotipoak eta genero rolak betetzen dira lanpostuetan, izan ere, gidolari, zuzendari eta eszenografo gehienak gizonezkoak dira, argi diseinatzailerak guztiak gizonak eta jantzigintzan denak emakumeak.

Literaturan moduan, emakume izaera gailentzen da. Emakumeak dira sortzaile izan aurretik eta ondorioz gizonen begiradatik baloratzen da euren lana; gorputz eder, desiragarri eta gazteak izan daitezten, haien talentua bitxikeriatzat hartuz, ikusgarritasun eta aitortza txikia

emanez, edo haiek bereziki lantzen dituzten antzerki-generoak bigarren mailakotzat jotz.

Antzerki-sormen egiturak patriarkalak dira: hierarkikoak eta androzentrikoak. Hala ere, dramaturgia berriak daude, autoretza kolektibodunak eta lan egiteko sareten direnak. Piramidearen oinarriari begiratuta andrak dira nagusi, gainera gaztetxeak, antzerki jaialdi txikiak eta sorguneak aipatzen ditu beste-lako ereduak erakusgarri.

Egilearen arabera arazoa boterea da: "Oso lan prekarioa da gurea eta ogi apurak partekatzea ez da inoren gustukoa izaten". Kontzientzia hartzearen eta praktika feministen beharra aldarrikatzen du, diskurtsoaz harago, nork bere burua aztertuta. ●